

Unibasqeko Ikasleen Aholku Batzordea sortzea

Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia

0. Sarrera

Unibertsitateen Lege Organikoak eta baita Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko legeak ere, ikasleek unibertsitate eta agentzietan inplikatu behar dutela eta erakunde horietako kalitatea ebaluatzeko prozesuetan ere parte hartu behar dutela sustatzen eta gomendatzen dute, EGHEan kalitatea bermatzeko estandar eta norabideei jarraituz.

Halaber, Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendaritzak jakin badaki oso garrantzitsua dela ikasleek Unibertsitate Sistemaren kalitatea bermatzeko prozesuetan modu aktiboan parte hartzea. Euskal unibertsitate sistemaren erabiltzaile lehentasunezkoak direnez, bere iritziak eta ikuspuntuak kontuan hartzea ezinbestekoa da. Izan ere, ikaslegoaren inplikazioa Agentziaren eremu guztietan ageri da.

1. Xedea

Hala ere, **Unibasqeko Ikasleen Aholku Batzordea (UIAB)** sortzeko proposamena egin da. Bere helburua honako hau da: Unibasqen edozein organori lagunduko dion kide anitzeko organo bat eratzea, ikasleen kolektiboak agentziaren jardueretan parte hartzearekin lotutako gaietarako.

Beraz, Gobernuaren kontseiluak, Aholkulari Batzordeak, Zuzendaritzak edo Unibasq-eko langileek edozein informazioa edo iritzia eskatu ahal izango diote UIAB-ri. Besteak beste, ikasleen prestakuntzarako, ebaluazioaren jardura guztietako parte-hartzerako, eta dokumentazioa aztertu edo txostenak egiteko ikasleen laguntza beharrezkoa den bestelako alderdietarako. Era berean, UIAB-k bere zalantzak, gomendioak edo iradokizunak Unibasq-eko edozein organori edo langileri helarazi ahal izango dizkio.

2. Osaera

2.1. Unibasqeko Ikasleen Aholku Batzordea honela osatuko da:

- a.- Agentziaren zuzendaria edo hark izendatutakoa, batzordeburu izango dena.
- b.- Gobernu Kontseiluko ikaslearen ordezkaria.
- c.- Aholku Batzordeko ikaslearen ordezkaria.
- d.- AUDIT Batzordeko ikaslearen ordezkaria.

e.-Titulazioen Ebaluazio Batzordeetan parte hartzen duten 5 ikasleetatik bat hautatuko da, haien artean eta gehiengo soilean. Bere izendapenaren gehienezko epea 3 urtekoa izango da.

Azkenik, Unibasqeko Ikasleen Aholku Batzordeko idazkaria agentziako langile bat izango da, hitz egiteko aukera izango du, baina ez bozkatzeko. Bileren aktak egingo ditu.

2.2. UIABko kide izateko beharrezkoa da Unibasq-eko beste organo bateko kide edo kargu jakin bat izatea. Harreman hau galduz gero, automatikoki UIABko kide izateari utziko dio. Halaber, ikasle izatearen galerak UIABko kide izatearen galera ere suposatuko du

3. Funtzionamendua

3.1. Ohizkotasunez, UIAB sei hilabetero bilduko da. Zuzendariak edo hark izendatutakoak bileraren deialdia egingo du. Agentziako organo desberdinek UIABren iritzia behar dituzten gorabeherak gai zerrendan barneratzeko eskaera egin dezakete. Zuzendariak edo hark izendatutakoak UIAB-ren bilerara deitu beharko du, beti ere hiru kideek edo gehiago eskatzen badiote. Hau egiteko epea eskabidea jasotzen denetik 15 egunekoa da.

3.2. Batzordeak bere funtzionamenduzko oinarrizko arauak ezarri ahal izango ditu, beti ere dokumentu honen edukia errespetatzen badu, eta baita Unibasq-eko legea eta estatutuak ere. Subsidiaroki Aholkulari Batzordearen arauak aplikagarriak izango dira.

3.3. Aholkulari organo guztietan gertatzen den bezala, UIAB-k ez du erabakitze gaitasunik. Baina bere gomendioak edo akordioak Unibasq-eko dagokien organoei edo langileei jakinaraziko zaie kontuan hartzeko. Gomendio edo erabaki hauek baliozkoak izateko, kide gehienek baiezko botoa beharrezkoa da.